

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2001 Apirila • 19. zenbakia



USE-01

AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN

• Il. hiruhileko irteerak	3
• Sarrera nagusiaren antolaketa	5
• Joxe Mari apaizari diru laguntza	6
• Joxin Azkue irakaslea saritua	7
• Txerrikumea nora joan zen?	7
• DBH 4. mailako saski zozketa	8
• Haurtzaro Ikastolan guraso margolari	8
• San Anton 2001	9
• Krosa 2000-01	9
• Oiarzo batxilergo ikastolako berriak	9
• Euskal Herriko ondarea ezagutzen	10
• Zuhaitz Eguna	11
• Haurtzaro Ikastolako 6. mailako ikasleak...Betimu	12
• 3 urteko neska-mutilak Donostian	13

HATZAK BETE LAN

• Antzarak Iturriotzen	14
• Seasketako haurtxoak gara	15
• Lanbideak lantzen	16
• Horrelakoa naiz	17
• Txikiei irakurtzen	18
• INAUTERIAK	19
• Eitb-ra bisita	23
• Zentzumenak	24
• Jazintoak, narzisoak eta tulipanak	25
• Euskal Herria lantzen	25
• Poesia eres tú	26
• Antzerkia DBHn	27
• Excursion à Hendaye	28

GURASOOK JAKIN DEZAGUN

• Jolasa, haurraren premia	29
• DBH 2. zikloko komisia	31

GU ERE KAZETARI

• Amodiozko gutunen saria	33
• "Kirolak lagunartea izan behar du"	35

NAHASTE-BORRASTE

• Hizki-zopak	38
• Zein da birritan agertzen ez den irudia?	38
• Zenbat suge daude?	38
• Non dago?	39



2. HIRUHILEKO IRTEEERAK

HAUR ESKOLA: 0-3 URTE

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
0-2 KARRIKA	ABENDUAK 21	KARRIKAKO AUZORA	AUZOKOEKIN EGUNA OSPATZEA TXISTORRA JANEZ
0-2 KARRIKA	ABENDUAK 24	KARRIKAKO AUZORA	AUZOKOEKIN EGUNA OSPATZEA GABON-KANTAK ABESTUZ
2-3 URTE	ABENDUAK 13-15	AIREPORTURA	HEGAZKINEN JOAN-ETORRIA IKUSTEA
2-3 URTE	TARTEKATUZ	KIROLDEGIRA	• IBILALDIAK EGITEN IKASTEAK • GAUZA BERRIAK EZAGUTZEA • INGURUAREN EZAGUTZA
2-3 URTE	TARTEKATUZ	ZURKOTIK BIDE GORRIRA	
2-3 URTE	TARTEKATUZ	BASOTIK BARRENA KANPOSANTURA	
2-3 URTE	TARTEKATUZ	OLANTXENENKO ASTOA IKUSTERA	

HAUR HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH 1	MARTXOAK 13	SAN TELMORA	ZULOAGAREN KOADRO BATZUK EZAGUTZEA
HH 1	MARTXOAK 13	BRETXAKO MERKATURA	MERKATU BATEKO POSTUAK IKUSTEA
HH 1	MARTXOAK 13	DONOSTIARA	DONOSTIAKO AZOKA ETA DENDAK BEHATZEA
HH 1	MARTXOAK 22	ELIZALDE AUZORA	HERRIKO DENDAK EZAGUTZEA
HH 1	MARTXOAK 27	BASERRI BATERA	BASERRIKO ANIMALIAK IKUSTEA
HH 2	OTSAILAK 2	ELIZALDEN ZEHAR	LANBIDEAK EZAGUTZEA
HH 2	MARTXOAK 23	ELIZALDEN ZEHAR	DENDA MOTAK EZAGUTZEA
HH 2	MARTXOAK 28	HONDARRABIKO JAIZUBIARA	NESTOR BASTERRETXE ETA BERE OBRA EZAGUTZEA
HH 2	MARTXOAK 30	ALCAMPORA	HIPERMERKATU BAT EZAGUTZEA
HH 3	MARTXOAK 15	ITURRIOTZERA	AHATEAK IKUSTEA
HH 3	MARTXOAK 27	OIARTZUNERA	OIARTZUN HERRIA EZAGUTZEA
HH 3	APIRILAK 3	HONDARRIBIRA	HERRI ARRANTZALE BAT ETA BERE ALDE ZAHARRA EZAGUTZEA
HH 3	APIRILAK 5	ERRENTERIARA	HERRI INDUSTRIAL BAT IKUSTEA



LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1.	URTARRILAK 15	ZINEMARA	KOMUNIKABIDEAK GAIARI LOTUTA
2.	URTARRILAK 22	POSTETXERA	
	OTSAILAK 1	E.T.B. DONOSTIARA	
	MARTXOAK 9	DIARIO VASCORA	
3.	OTSAILAK 14	ZINEMARA	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARA HURBILDU
	APIRILAK 5	ZIENTZIAREN KUTXAGUNERA	
4.	OTSAILAK 14	ZINEMARA	
5.	OTSAILA	BAIONA-ISTURITZ DONIBANE GARAZIRA	
	MARTXOA	GERNIKA ETA BILBORA	
	MARTXOAK 22	ZINEMARA	
6.	URTARRILAK 25	DONOSTIARA: DIARIO VASCO ETA KOLDO MITXELENARA	EGUNKARI BATEN PROZESUA IKUSI ETA PLASTIKA ALORREAN ERAKUSKETA BAT IKUSI
	MARTXOAK 22	ZINEMARA	
TAILERRA IKASLEEKIN: BULIMIA ETA ANOREXIA HITZALDIA GURASOENTZAT			

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH-1/2	URTARRILAK 30	ONBIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH- 1/2	MARTXOAK 15	ANTZERKI TOPAKETARA	EUSKARA ARLOAREN HELBURUA
DBH- 1	MARTXOAK 29	DONOSTIATIK ORIORA	GEOLOGIA: GURE INGURUA EZAGUTZEA
DBH- 2	MARTXOAK 29	ERNIORA	ESPELEOLOGIA: GURE INGURUA EZAGUTZEA
DBH-2	MARTXOAK 13	HENDAIARA	FRANTSESA ERABILIZ HERRIAN ZEHAR IBILI
DBH- 4	OTSAILAK 1	ONBIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH-3/4	MARTXOAK 6	DONOSTIAKO ANTZOKI ZAHARRERA	VAIVEN ANTZEZLEAREN "LOTSAGABE" OBRA IKUSTERA
DBH- 3	MARTXOAK 11-16	ASTIGARRAGAKO NATURA ASTERA	ENERGIA BERRIZTAGARRIAK AZTERTZEA
DBH- 4	MARTXOAK 22	ONBIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH-3/4	MARTXOAK 29	ARTIKUTZARA	MENDI IBILALDIA: GURE INGURUA EZAGUTZEA

OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
BATX. 2	URTARRILAK 15	GIPUZKOAKO CAMPUSA	UNIBERTSITATEA EZAGUTZEA
BATX. 2	URTARRILAK 17	BIZKAIKO CAMPUSA	UNIBERTSITATEA EZAGUTZEA
BATX. 1	OTSAILAK 1	ONBIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
BATX. 1/2	OTSAILAK 16	BAREGES HERRIRA	ESKIATZERA
BATX. 2 (LETRAK)	OTSAILAK 23	DONOSTIARA	HIRIA GEOGRAFIKOKI AZTERTZEA
BATX. 1	OTSAILAK 23	ERRIOXARA	EUSKARA ETA GAZTELERAREN AZTARNEN BILA



SARRERA NAGUSIAREN ANTOLAKETA

Ikastolako sarrera nagusia itxuraz aldatu egin dugu. Gaur egun Ikastolako sarrera nagusian panel handi batekin egingo dugu topo. Bertan, Ikastolako garaian garaiko informazioa aurkituko dugu (eguberrietako informazioa, matrikulazio kanpainako informazioa, inauteriak...)


Aurrera jarraitu eta paretatik zintzilik beste panel batekin egingo dugu topo. Bertan azaltzen dira, besteak beste:

- Ikastolako organigrama
- Kontseilu Errektoreko partaideak (gurasoak, langileak, administraria eta zuzendaria)

- Ikasle-tutoreen gela banaketa: Partzuergoa, Haurtzaro eta Oiartzo
- Ikasleen eta irakasleen ordutegia
- Ikastolako gelen banaketa

Panel hau BELEN MORENOK egin du. Belen Arte Ederretan lizentziatua da (berez eskultorea da) eta besteen artean "ilustratzaile" eta "diseinu grafikoa" ikasketak eginak ditu. Donostiarra jaiotzez, gaur egun Karrika auzoan bizi da eta bere semea, Ian Villar, Karrikako Haur-Eskolako ikaslea da.


Lerro hauen bitartez, Haurtzaro Ikastolak biziki eskertu nahi du Belenek egindako lana. Esker mila Belen!!



Haurtzaro Ikastola en su afán de mejora continua, ha remodelado la entrada principal de la misma. Así, en la entrada se ha colocado un panel informativo móvil, donde se expone información puntual sobre la Ikastola (Navidades, campaña de matriculación, carnavales...)

Por otra parte, al lado de la entrada de Secretaría, se ha colocado un segundo panel informativo, donde se recoge información sobre este curso escolar (organigrama del centro; se presenta a los integrantes del Consejo Recor; organización de aulas-tutores del Consorcio, Haurtzaro y Oiartzo; horario del alumnado y del profesorado; organización espacial de la Ikastola).

Este segundo panel ha sido confeccionado por Belén Moreno, licenciada en Bellas Artes y con estudios de ilustración y diseño gráfico. Donostiarra de nacimiento, actualmente reside en el barrio de Karrika y su hijo, Ian Villar es alumno en la Escuela Infantil de Karrika. Desde estas líneas queremos agradecer a Belén el trabajo que ha realizado. ¡Gracias de corazón!



JOXE MARI GARMENDIA APAIZARI DIRU LAGUNTZA HAURTZAROTIK

Aurtengo Gabonetan eta Santa Ageda bezperan Haurtzaro Ikastolako ikasleek jasotako dirua Ekuador aldera bidali dute, hain zuzen ere Joxe Mari Garmendia apaiza bertan egiten ari den proiektuei laguntza emateko.

Beraz, jakinaren gainean jartzen gaituzte baserritar eta kaletarrek emandako eskupekoa, bai Eguberrietakoa eta baita Santa Agedakoa ere, Joxe Mari Garmendia apaiza Ekuadorren burutzen ari den proiektuarentzat izan dela, aurreko urteetan egin izan duten bezalaxe.

Horrela, jasotako diruarengatik Haurtzaro Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei.



Este curso escolar también se ha enviado desde Haurtzaro Ikastola a Ecuador una ayuda económica para Joxe Mari Garmendia, cura de Oiartzun. Como es sabido, Joxe Mari está llevando a cabo proyectos humanitarios en ese país sudamericano, y los alumnos de Haurtzaro Ikastola han querido colaborar nuevamente en dichos proyectos. Para ello, han reunido el dinero recogido el día 24 de diciembre, así como el recogido la víspera de Santa Águeda. En total han sido 60.000 pts que se han enviado a Ecuador.




JOXIN AZKUE IRAKASLEA SARITUA

Aurtengo ikasturtean berriro Haurtzaro Ikastolako Joxin Azkue irakasleak saria jaso du hezkuntza alorrean kalera-tzen diren software materialak bide. Izan ere, Hezkuntza Sailak antolatzen duen 2000ko "Migel Altzo" lehiaketan, Joxin Azkuek, egile gisa, sortutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta "Ostadar" Proiektuaren **Demokrazia** izeneko softwarari, software arrunta atalean, **Aipamen berezia** eman diote.

"Ostadar" proiektua DBH etaparako antolatuta dago eta lau maila horietako testu liburuak eta material gidaz osaturiko proiektua da.

Lerro hauen bitartez zorionik beroenak eman nahi dizkiogu Joxin Azkueri. Segi beza horrela!!



Joxin Azkue profesor en la etapa de ESO de esta ikastola ha sido nuevamente galardonado con el premio "Migel Altzo" otorgado por el Departamento de Educación. Joxin Azkue ha realizado el CD ROM denominado "Demokrazia" para el proyecto "Ostadar" de ESO. ¡¡Felicidades Joxin!!

TXERRIKUMEA NORA JOAN ZEN?



2000/2001 ikasturteko Santo Tomas azokan txerrikumea zozketatu izan du Haurtzaro Ikastolak Festa Komisioak bideratuta. Horretarako Ikastolako ikasle eta langile guztiei txartel bana ematen zaie. Azoka bukatu ondoren, txerritxoaren zozketari ekiten zaio, eta egia esan ikasle eta ez ikasleak oso urduri egoten dira txerritxoa nork eraman behar duen jakiteko irrikiz.

Aurtengo txerritxoa Haur Hezkuntzako 3 urteko ikasle bati egokitu zitzaion: JARA LUJANBIO SISTIAGARI hain zuzen ere. Eta argazkian ikus daitekeenez, bai Jarak, bai bere ahizpa bikia Anek eta nola ez amak berak ere oso pozik jaso zuten txerrikumea. Bejondiola hirurei!!

En la feria de Santo Tomás la Ikastola tiene por costumbre sortear el cerdito que se expone durante la fiesta. Para ello, la Comisión de festejos reparte a todos los alumnos y trabajadores de la Ikastola un número para el sorteo. Este año fue agraciada con el cerdito la alumna de tres años JARA LUJANBIO SISTIAGA, que recogió el cerdito junto a su hermana gemela ANE y su madre IZASKUN. ¡Felicidades!



DBH 4. MAILAKO SARI BANAKETA

Joan zen abenduaren 21ean, Santo Tomas azokan, DBH 4. mailako ikasleek zozketatutako saskiaren zenbaki saritua 3.982 izan zen. Eta egunean bertan azaldu zitzaigun irabazleak: IBARGÜEN ALZUGARAY sendia hain zuzen ere. Amak erosi omen zuen txartela eta zer duk eta saria bertan. Argazkian familia osoa ageri da: MAITETXU ama, AINHOA alaba, AITOR semea eta JOXEANTONIO aita, aldamenean irabazitako saskia dutela. Bejondeizuela eta zorionak guztion partetik!!!

La familia IBARGÜEN ALZUGARAY fue la agraciada al recibir la cesta de Navidad que sortearon l@s alumn@s de 4º de la ESO. La familia recogió la cesta expuesta en la tienda OROITZAK. ¡Felicidades!



HAURTZARO IKASTOLAN, GURASOAK MARGOLARI




Las pasadas Navidades un grupo de padres-madres de Ed. Infantil se reunieron en la Ikastola para pintar las aulas de sus hijos. Para ello contaron con la inestimable ayuda de Jose Ostolaza y en dos-tres días terminaron con el proyecto que había propuesto el Consejo Rector de la Ikastola.

Debido al éxito obtenido, en las próximas vacaciones de Semana Santa se quieren pintar las aulas de Ed. Primaria. Para ello se solicitará la ayuda de padres-madres de dicha etapa.

Gurasoak ere Ikastolako kide dira eta behin baino gehiagotan izaten dute hori agerian uzteko aukera. Izan ere, azkeneko Gabonetako oporretan Haur Hezkuntzako hamabost bat guraso bildu ziren euren seme-alaben gelak margotzeko. Horretarako, urrian egin ziren guraso bileretan aurkeztu zen egitasmo berria, eta berehala guraso talde batek eman zuen izena.

Talde hau Joxe Ostolazaren gidaritzapean aritu zen lanean, eta bi bat egunetan zortzi gelei egundoko errepasoa eman zioten. Egia esan, udan pareta nagusiak margotuta utzi zituen langile talde batekin, eta Gabonetan, armairuak, apalak... margotu zituzten.

Oso esperientzia ona izan denez, orain Lehen Hezkuntzako gelak margotzeki ekingo zaio. Horretarako Aste Santuko oporretan bilduko da bigarren guraso taldea, oraingo honetan Joxe Ostolazaren laguntzarekin. Mila esker guztioi!!



SAN ANTON 2000-2001

*Oiartzuarren artean,
Hurtzaroko makina ikasle,
irakasle, guraso eta langile ikusi
zituen Txinparten begiak.*

KROSA 2000-2001

*Euuuup! Neskak milurtekoaren
estreinaldia krosean.*



OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO BERRIAK

Cicerone programari esker UPV/EHUK ateak ireki dizkie Oiartzo Ikastolako 2. mailako ikasleei, bere irakaskuntza, lanbide proiektzio eta azpiegitura bertan, in situ, azaltzeko, eta, bide batez, UPV/EHUK eskaintzen dituen karreraren arteko hautaketa errazago eta egokiago egiteko.

Ateak irekitzeko jardunaldiak UPV/EHUREN hiru Campusetako fakultate eta unibertsitate eskola guztietan egin badira ere, gure ikasleek honako hauek bisitatu dituzte: urtarrilaren 15ean, Gipuzkoako Campuseko ingenieritza tekniko, zuzenbide, kimika, arkitektura, enpresaritza zientzia, informatika, irakasle eskola eta filosofia/psikologia fakultateak, eta urtarrilaren 17an, Bizkaiko Campuseko goi mailako ingenieritza eta teleko-

munikazioak, medikuntza, arte ederrak, kazetari-tza eta zientzia fakultateak.

Bisita hauetan ikasleek UPV/EHUREN titulazioei buruzko informazio hitzaldiak izan dituzte alde batetik, eta bestetik, UPV/EHUREN eremu fisikoa ezagutzeko aukera ere izan dute.



Laster aukera egiteko garaia etorriko zaie; ea jardunaldi hauek benetan lagungarri izan diren gure ikasleentzat.

Bestalde, otsailaren 16an eski irteera izan zuten batxilergoko ikasleek. Goizean goiz autobusez abiatu ziren, eta Beregeko eski estazioan ibili ziren eskiatzen. Primerako eguna pasatu zuten, giharrak mugituz, zilipurdika ibiliz eta bereziki, umore ona izan zen nagusi.



EUSKAL HERRIKO ONDAREA EZAGUTZEN

DBH 3. eta 4. mailako ikasleak Zerainen eta Gernikan izan dira bertako ondareak ezagutzen eta aztertzen. Zerainen XIX. mendeko zerrategia eta labe-garaiak ikusteko aukera izan dute, eta Gernikan, berriz, Bakearen museoa eta Juntetxea.





ZUHAITZ EGUNA 2001

Urteroko ohiturari jarraituz, Oiartzungo Udalak aurtengo ZUHAITZ EGUNA antolatu zuen otsailaren 17an. Landaketa egin behar den lekura joan ahal izateko goizeko 9:30ean bilduko ginen Done Eztebe Plazan, Udaletxearen aurrean.

Landaketa Gurutze auzoko Amezto-kieta baserri inguruan egin genuen, aurtan bi urte erre zen lur sail batean eta landatu genituen zuhaitz motak Urkia eta Arkazia izan ziren. Bertaraino oinez joan ginen, Haurtzaro Mendi taldearen laguntzarekin.

Landaketa amaitu ondoren, Udalak hamaiketakoa eskaini zigun parte hartu genuenoi.

Aukera paregabea izan genuen Natura maite dugun guztiok gure lurrarekiko daukagun maitasuna adierazteko: zuhaitzak landatuz, hain zuzen ere.

Honekin batera, Udaletxeko Mendi teknikaria den Carlos Aseginolazaren bisita izan genuen Haurtzaro Ikastolan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan eta DBHko 1. mailan. Bisita honekin Oiartzungo mendi eta zuhaitzez gehiago jakiteko aukera izan genuen.



Siguiendo la tradición, el Ayuntamiento de Oiartzun organizó el DÍA DEL ÁRBOL 2001. Para acercarnos a la zona de la plantación, nos reunimos a las 9:30 h. de la mañana en la Plaza de Done Eztebe, frente al Ayuntamiento.

Terminada la plantación, se ofreció un almuerzo a todos los asistentes a la misma.

Tanto l@s jóvenes y niñ@s como l@s padres-madres amantes de la Naturaleza tuvimos la posibilidad de dar verdadero sentido a nuestra condición de amig@s de la Tierra, realizando un trabajo tan noble como es plantar un árbol.

Así mismo, los alumnos de 5º y 6º de Primaria y 1º de ESO contaron con la visita de Carlos Aseginolaza, técnico de montes del Ayuntamiento de Oiartzun. Durante la charla, los alumnos ampliaron su conocimiento sobre los árboles y montes de Oiartzun.



HAURTZARO IKASTOLAKO SEIGARREN MAILAKO HAMAICA NESKA BETIMU-KO FINAL HERENETARA IRITSI DIRA



Esan bezala, Donostiako Jareño kultura etxean (Egian) Betimu-ko 2. Final herena martxoaren 14an grabatu da, eta Euskal Telebistak, martxoaren 26tik 30eko aste horretan aurkeztuko du.

Gure hamaika neska hauek entseguak eta prestaketak egiten GOGOR ETA TINKO aritu dira: Iraia Moreno, Alazne Etxeberria, Olatz Mitxelena, Nagore Arriaga, Ane Badiola, Itsaso Telletxea, Maider Juanes, Aiora Mendiburu, Igone Eskudero, Oihane Orkaizagirre eta Nahikari Errazkin.

Beraiek aurkeztutako lana hauxe izan da :

1. KARAOKEA -n: Iraiak "SUTAN GAUDE" abestiarekin.
2. DANTZAMU - n: Alazne, Olatz, Nagore, Ane, Itsaso eta Maiderrek TOM'S DINNER- en musikarekin, dantza martxosoa aurkeztu dute.
3. RAP- EROA- n: Aiora, Igone, Oihane, Nahikari eta Iraiak zortziko handian, "Gripea daukadala esan dut, ikastolara ez joatearren", gaiarekin.
4. "GU GEUK" frogan: Puntu gehiago irabazi nahian Alazne, Olatz, Nagore, Ane, Itsaso eta Maiderrek berriro dantzatu dute. Kasu Honetan, PET SHOW BOY'S-en "Paninaro" abestiarekin aritu dira.

Final Herenetan parte hartzeko aukera izan dutelako, hemendik ZORIONAK bidali nahi dizkiegu.



3 URTEKO NESKA-MUTILAK DONOSTIAN



BEHIN JOAN GINEN
MERKATURA...



"GUINDO JAUNAREN UDAREAK" BODEGOIA LANDU GENUENEZ, SAN TELMON
DAUDEN ZULOAGAREN BESTE ARTELAN BATZUK IKUSTERA JOAN GINEN.



ANTZARAK ITURRIOTZEN

Aurtengo udazken eta negu epelean sarritan ibili gara kanpoan, gu, antzarok, harat eta honat, belarra jaten.

Ondoko haur-eskolako bizilagun txikien bisita sarritan izan dugu, eta hauen berri eman nahi dizuegu.

Goizean, tipi-tapa batzuk, karro barruan besteak, guginaino iristen dira. Urrutitik ikusten ditugu, orduan hegala zabaltzen, bular aldea kanpora atera eta harro aski jaisten gara karraka eginez, beraingana.

Hasiera batean Laura eta Iker beldurtzen ziren, denborarekin ohitzen joan dira, hainbeste kostatako zeremonia ohikotzat hartuz.

Harrokeriaz jokatzeko dugun arren, ez diegu inoiz mokokada txikiena ere egin, harri koxkorrak botatzeko hasi zirenean tentatuak egon baginen ere.

Orain irakasleek ogia ekartzen dute, arto aleren bat ere bai tarteka. Janari apur bat jasotzen dugu behintzat!!! Ederki aski dakite ordea inoiz aurpegia jarri eta guretzat behar lukeen ogi zatia beraiek jaten.

Begiratzeko gogo handiz etorri badira, putzulotxora sartzen gara: uretan burua sartu, hegala zabaltzen...

Gurekin denboratxo egin ondoren, indioilarrak, ahateak, usoak, oilarrak ikustera joaten dira... eta buelta berriro ere gelara, bazterretik, autoren bat hurbiltzen bada ere.

Hurrengo arte!! Hurrengoan antolatuko dugu berriz ohiko zeremonia!

Laster arte!!!





SEHASKETAKO HAURT XOAK GARA



Kaixo:

Karrikako haur-eskolan gauden txikiak gara: Aiert, Aitor, Julen, Naia, Lur, Xabier, Iosu, Nikolax, Maialen, Iker, Garazi, Eneko, Asier, Ane, Aiora eta Maider. Gure hezitzaileak Pilare, Iosune eta Roxali dira.

Lau hilabete daukagula ekarri gaituzte haur-eskolara. Gauza berdintsua gertatzen da Iturriotzekoekin ere. Lehenengo egunetan ama edo aita geratzen da gurekin denbora jakin batean, eta, poliki-poliki, gure jarrera ona dela ikusiz gero, gure egonaldia luzatuz joaten da, normaltasunera iritsi arte.

Goizetan ordu desberdinetan etortzen gara, eta 9,30 alderako taldea osatzen da. Aita edo ama gelaraino sartzen dira gurekin; berokia kendu, hamakan edo lurrean jarri eta jostailuren bat eskaintzen diguten bitartean gure hezitzailearekin hitz egiten dute: nola pasatu dugun gaua, noiz esnatu garen, ongi gosaldutugun, zein unetan aurkitzen garen, galderak, gomendioak... Ikusten duzuenek, gu gara protagonistak.

Oso txikiak gara eta jarraipen zuzena behar dugu. Egunero gure goizeko lo-kuluxkak egiten ditugu, behar dugun garaian jan eta lasai-lasai gaudenean gelan edo kalean jostatzen egoten gara gauza desberdinak manipulatu, esperimendu eta aurkituz. Garai honetan objektuak txupatu, ukituz, astinduz, boteaz... eta abar aurkikuntza ugari egiten dugu,

gure mundu txikia zabaltzen doan bitartean. Kanean ere gustuko gauza asko aurkitzen ditugu, gure ahate lagunak, erreka, zakurra, Triniren oiloak...

Bazkal garaia oso atsegina egiten zaigu. Hasera batean besoetan hartzen dugu tutua, gero hezitzaileak hamaketan jarrita kutxarekin purea eta frutak ematen dizkigute eta gorputz aldetik trebezi gehiago lortzen dugunean, mahaian bazkaltzera pasatzen gara. Bai ongi bazkaltzen dugula lagunekin mahai baten inguruan, platera aurrean dugula, gure saiakerak egiten janaria ahora eramateko.

Tripa bete ondoren prest gaude siestara joateko baina lehenago pardela aldatu behar digute eta hain da atsegina une hau! Arropa kentzea, gure gorputza ukitzea... Begiradak, irribarreak eta solasaldi goxoak sortzen dira gu eta hezitzailearen artean.

Siestako ordua!! Sssssssss!!

Esnatu ahala jantzen gaituzte. Behar ahala merienda-tzen dugu eta hemendik aurrera hasten dira etortzen gure bila aita, ama, amona-aitonak. Orain badugu arratsalde guztia hauekin egoteko, gutaz goza eta disfruta dezaten. Berokiak jantzi eta hezitzaileari muxu eman ondoren bagoaz, BIHAR ARTE LAGUNAK!!

A!! Ez ahaztu nire koaderno aitaxo!! Koadernoan egunean zehar bizi izandakoa eta egindakoa idazten dute gure hezitzaileek eta.



LANBIDEAK LANTZEN

KAIXO TXINPARTEKO LAGUNAK:


ORAINGO HONETAN KONTATU NAHI DIZUEGU ZEIN ONGI PASATU GENUEN MARGOLARI, AROTZ ETA JOSTUN IZATEN.

MARGOLARI IZATEKO PARETA ZEIN KOLOREZ MARGOTU ERABAKI GENUEN. ONDOREN, KOLOREAK NAHASTU ETA BROTXA ETA RODILOAREKIN EGIN GENION LANARI.

BUKATZEKO, PARETA APAINDU GENUEN. EMAITZAK IKUSI NAHI IZANEZ GERO, 4 URTEKOEN PASILOAN DITUZUE.



ETA HAROTZ IZATEA ERE ZEINEN NEKETSUA DEN PROBATU GENUEN. ILTZEAK ERRAZ OKERTZEN ZITZAIGUN. MAILUAK ASKO PISATZEN ZUEN...



GURE JOSTAILUTXOAK ETA TAZOAK GORDETZEKO POLTSA TXIKI BATZUK ERE JOSI GENITUEN.


BESTE BAT ARTE

4 URTEKO NESKA-MUTILAK




HORRELANA NAIZ

NOLA JAIO GINEIV ETA ELKAREN
ARTEAN EZBERDINAK GARLA KONTURATU GARA.
DENOK GARA BAKARRAK ETA DESBERDINAK!



ETA BARRUTIK NOLAKOAK GARA?



AI ENEL ZENBATGAUZA
DITUGUN BARRUALDEAN:
BIRIKAK, BIHOTZA,
HEZURRAK.

MARTXOAK 12. HAUR HEZKUNTZA.
(5URTE)



TXIKIEI IRAKURTEEN

GUEK LIDEREN GELARA JOAN
GARA IRAKURTEERA ETA HODEI
TRIPAUENDIAREN IPUINA IRAKURRI
DUGU ETA OSO ONDO PASA DUT
ETA NIRE ANAIAT KASO EGIN
DIT ETA OSO ONDO PASA DUT NIRE
ANAIAREKIN.

LLAITZ



Ongi pasa nuen
irakurtzen.

Ipuina polita zelako
kontatu genien
Pizka bat jolasten ari
ziren aurretik beste
bi ipuin kontatu
zizkielako.

Ibañ



OSO ONDO PASA NUEN ETA BERNIEK

OSO ONDO EGON ZIREN ETA ESAN
ZIGUTEN IPUINA OSO POLITA ZELA

HAUR ASKO ZEDDEN ETA NAHI

GENUENEAN BERRIRO JOATEKO ESAN
ZIGUTEN

Yolgora

LIDENGELARA JOAN GERA
ETA HAN ODEI TRIPAU DIA
IPUIA IRAKURTEERA JOAN
GERA PISKAT URDURI JOAN
NAIZ ETA GERO LASATU NAIZ
ETA OSO ONGI PASA DUT

in/60

L. H. 1. MAILA,

INAUTERIAN

zomorro zinko "el día 25"...

Aurtengo Inauteriak ez dira 25ean egokitu, 23an baizik. Eta ez dira nolanahikoak izan, mundialak izan baitira, egia esateko. Badaude arrazoi franko hori baieztatzen dutenak. Has gaitezen aipatzen.



INDARRAK HARTZEN

Eguna ez zen oso oskarbi esnatu Oiartzun herrian. Hori baino okerrago, euria, bai, xiri-miria, urrutira joan gabe ari zuen goiz goizetik. Ene bada, gure saltseroen jantzia... Horixe pentsatu zuten Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle eta irakasleek.

Baina zorte gaitza izan genuen eta goizeko desfilea egiteko aukera izan genuen, izan ere goizeko 10etarako atertu baitzuen eta gure neska-mutilek euren jantziekin disfrutatzen hasteko aukera izan baitzuten. Horretarako, propio etorritako dultzaineroak, Txalaparta izeneko fanfarrea... izan genituen gure artean.

Baina, eten hori izan eta gero, berriro ere euri langarra. Eta arratsaldeko emanaldiak non? Madalensoron? Elorsoron? A zer nolako nahaste borratea.



Bai halaxe da, aurtengo gure eskenatokia aldatu egin behar izan dugu. Baina ez gaude horregatik damuturik. Bai zera. Alderantziz, oso pozik. Izan ere dena bikain joan baitzitzaigun:

IN A U T E


- Aurkezleak, aurten ez ziren nolanahikoak izan: profesionalak aizue. Esker mila Amaia Cardona eta Joseba Apaolazari, oso pailazo jator eta adeitsuak izan baitziren.
- Ondorengo saioa, motza baina ona. Hala ere, aurreko urteetako listoia ez dute inolaz ere gainditu. Hurrengoan izan behar du.
- Gurasoen txanda: beti bezain ikusgarria. A zer nolako pirata kuadrila. Gainera, itsasontzi eta guzti. Ez dute lan makala hartzen hauek ere.
- Bi urteko haur bainisten txanda izan zen jarraian. Horko jaboia eta hemengo aparra. Ez zen alerik ere ito, eta hor nonbait.
- Eta ipuinetako txikiak zer? Txerrikumeak, antxumeak, otsoak, deabruak, Patxi errementaria... Politik benetan.
- Eromenak hartu zuen Elorsoro eta jarraian ikusi genituen Martzianoak aieka batetik, eta, bestetik, Brasildik espreski etorritako saltseroak Alaitz eta Mainerren kantura dantzan. Argi dago Haurtzaroko Inauteriak oihartzun handikoak direla, eta horren lekuko bertara etorritako moja, apaiz eta fraide ugaria. Eta une batean Elorsoro kiroldegia eliz erraldoi bat bihurtu zen, non Aita Santua bera ere etorri zitzaigun bedeinkapena ematera.
- Bukatzeko, DBHko ikasleen txanda izan zen. Eta ez zuten batera huts egin. Hasiera eman zioten bertako jendea beldurtu nahian. Baina ez zuten lortu. Jarraian, bikote gaztetxoek txanda. Ondoren, behi eroek beste pixka bat zoratu gintuzten. Eta bukatzeko, laugarren mailakoek agertu zuten ilusio eta pozak izugarri bete gintuzten.

Bai, aurtengo Inauteriek xarma berezia izan dute. Horren lekuko Elorsoro kiroldegia lepo bete zela. Pozik geratu ginen guztiok. Inauteriak badu segidarik gurean.

Estos Carnavales nos han llenado de alegría la Ikastola. Como en ediciones anteriores, cada ciclo se ha esmerado de tal manera, que este año también hemos disfrutado a tope. Destacaremos cuatro aspectos:

- Debido al mal tiempo, este año el festival de la tarde se celebró en el polideportivo Elorsoro. Subrayaremos que la organización en un emplazamiento nuevo no desmereció el acto.
- La participación del grupo compuesto por padres-madres de la Ikastola va en aumento, lo que nos alegra muchísimo.
- La presentación del festival estuvo a cargo de Joseba Apaolaza y Amaia Cardona. Desde aquí les expresamos nuestro agradecimiento.
- Por último destacar la labor que realizan tanto alumnos como profesores y padres-madres para que ese día el Carnaval brille con luz propia. Eskerrik asko!!

R I E T A N



"A ze bikote paregabea gure aurkezleek osatu zutena".



Kurrin, kurrin, dotoreago ezin!



Ikuskizuna hasteko prest!




Anxumeak erne, adartxoak tente!



Nolako piratak? Guraso mundialak!



Deabruak gorri, Patxi Errementaria larri!



Xalala, riki, riki, dutxara!



Martzianoak berde, martetik gure lurrera alde!

INAUTERIAN

zomorro zinko "el día 25"...



Saltseroak dantzan, ikusleak saltsan !



"Grease"-ko aktore eta aktoresak gure artean




Badaezpada ere otoitz egin dezagun.



Ai behi eroa, zein ote da zure geroa?



Beldurraren beldurrez, inork beldurrik ez!



Pipi, Superman, Mikey, Minnie, Maia erlea... Ipuinetako pertsonaia miresgarriak



E.T.B. ra bisita

Hara autobusean joan ginen eta
 han ikusi genuen Mikel I jaia
 denbela Marialuisa eta Gaizka eta beraien
 atsean ikusi genituen eta kalera niska
 bat ere bai baina zerurretazkoa zen
 dena. Dena plastikozkoa zen. Bai
 telebista galkak ikusi genuen.

2 maila





ZENTZUMENAK

Kaixo!

Gu 3. mailako neska-mutilak gara, eta 2. hiruhileko honetan ingurunean, zentzumenen gaia landu dugu. Guk hasieran ez genekien asko zentzumenei buruz, eta orain asko ikasi dugu. Bukaeran gai honen aurkezpena egin dugu, eta hormirudi bat ere egin dugu.

Guk nahi duguna da: jendeak bere eta besteen zentzumenak ondo zaintzea eta aholku hauek ondo irakurtzea





JAZINTOAK, NARZISOAK ETA TULIPANAK

Azkeneko Txinparten esan genizuen landatu genituen bulboetatik landareak jaioko zirela; ba, jadanik jaio dira, eta oso politak dira. Gehienei jazintoa atera zaigu lehenengo, gero narzisoa eta azkenik tulipana. Hain politak irteteko asko zaindu ditugu. Orain egunero lurra ukitzen diegu, ura behar duten jakiteko.

Jazintoak petalo asko ditu, kolore oso politak eta hosto luzeak. Narzisoa oso luzea da; gehienak horiak atera dira, kanpai bat daukate eta izar antzeko bat atzean. Tulipana, berriz, lehenengo itxi-itxia azaltzen da, eta gero, handik pixka batera, irekitzen hasten da.

3. MAILAKO IKASLEAK



EUSKAL HERRIA LANTZEN



5. mailakoak otsailaren 28an Gernikara eta Guggenheimera, bide bazterrak elurrez txurituta egon arren.

Gernikan bidea ikusi ondoren, arbolari ohore guztiak egin genizkion.

Begoñako elizan hamaiketako (patata zorroa) egin eta Guggenheim museoan benetako sorpresa atsegina jaso genuen; pertzepzioa lantzen zuen erakusketa hau esperientzia bihurtu zen. Noski, ondoren, irakasle petral hauek ia bazkaltzeko astirik eman gabe ikastolara itzuli ginen. Gosea nagusi zen zenbaitzuengan, halako hamaiketakoarekin izan ere...

Baina guztiak merezi izan zuela pentsatzen dugu.



POESÍA ERES....TÚ

Este segundo trimestre los alumnos de 6º de primaria hemos intentado saber un poco más sobre poesía. Hemos querido saber qué es poesía, y para ello hemos conocido algunos poetas y sus poemas, para más tarde intentar que nuestras palabras fueran poesía. Pero...

¿Qué es poesía?

Dices mientras clavas en mi pupila
tu pupila azul.

¿Qué es poesía?, ¿y tú me lo preguntas?

Poesía..., eres tú.

Gustavo Adolfo Bécquer

La noche

Cuando la noche aparece
la gente desaparece

Cuando la noche desaparece
la gente aparece

La noche es marrón
como un macarrón

y la luna brilla
en su silla de mantequilla

Imanol I.

Igotz S.

Beñat L.



ANTZERKIA DBH-N

DBHko 2. mailako ikasleekin antzerkia landu dugu ebaluazio honetan euskara arloan.

- Alderdi teorikoa
- Alderdi praktikoa
 1. Gidoia, antzerkia IDATZI. Gela bakoitzean 4 talde osatuta.
 2. Talde bakoitzak idatzitakoa ANTZEZTU.
 - a) Gelan (ebaluazio egunean)
 - b) Gela Nagusian (Inauteri goizean)
 - c) Zenbat mailatan (LHko 5. maila, HHko 5 urtekoak...)
 - d) Errenteriako NIESSEN aretoan, antzerki topaketetan martxoaren 15ean. Erakusketa honetarako hautatuak:
 - 2 A: BETIMU (Xuban, Garazi, Naiara, Jone eta Jon)
 - 2 B: ANASTASIO TABERNA (Irati U., Naiara, Unai, Mikel eta Iker)
 - 2 C: ZERUKO BIDEAN (Jurdana, Xabier, Jokin, Maddi eta Jone)





EXCURSION À HENDAYE



Hendaye se trouve à côté d'Irun et Hondarribia, autour de la baie de Txingudi.

Nous allons à Hendaye le mardi, 13 mars, pour pratiquer le français et faire une enquête sur le village.

Premièrement nous prenons le bus à une heure moins dix. Une heure cinq nous prenons le train à Arragua. Quand nous arrivons à la gare d'Hendaye, nous déjeunons un sandwich.

Nous partons de la gare à deux heures pile. Nous allons par la Rue de la Gare. Nous passons un pont et nous arrivons au Boulevard du Général de Gaulle. Après nous trouvons la maison où est mort Pierre Loti, en 1923. Nous voyons aussi une petite et belle plage. Là nous connaissons un pêcheur. Puis, nous visitons le monument de la Première Guerre Mondiale. Il y a une inscription qui dit "Aux fusillés et aux victimes de la barbarie nazie."

Après nous voyons le fronton Gaztelu Zahar, la bibliothèque, la poste, et l'église Saint-Vincent à la place de la République. Nous voyons aussi beaucoup de magasins. Par exemple, une quincaillerie, une corbonnerie, une boutique, une pâtisserie, une poissonnerie... Nous demandons des choses et un homme nous aide avec les questions.

Pour finir, nous retournons à la gare SNCF et nous prenons le train. Nous arrivons à Oiartzun à quatre heures et demie.

Français, DBH 2



DBHko 2. mailako ikasleek frantsesa praktikatzen bi orduko ibilaldia egin genuen Hendaian kaleetan barrena. Topoan egin genuen joan-etorria eta irakasleak aurrez prestatutako galdekizun orria bete genuen Hendaian. Horretarako hendaianrekin dezente hitz egin behar izan genuen.



JOLASA: HAURRAREN PREMIA

Jolasten den haurra haur sanoa da (Winnicot)

Haurraren jolasa hark egiten duen ekintza serioenetako bat da. Helduok, hala ere, "haur-jolasa da" esan ohi dugu zerbaitek garrantzi txikia duela adierazteko. Agian heldu askori ahaztu egin zaigulako izango da zer-nolako plazerra eta zer-nolako interesa genuen jolasean ari ginenean.

Haurra oso garaiz hasten da jolasean.

- Lehen hilabeteetan bere eskuak izango ditu jostailu.
- Gero maindire atzean ezkutatu-ko da... besteak beste.

Gero, handituz doan neurrian eta bere garapen psikologikoak aurrera egin ahala, jolasak ere aldatu egingo dira:

- urtebete inguruan: gauzak bete eta hustu, bota eta jaso...
- 2 urte inguruan: urak, harriek, lokatzak berenganatuko dute haurraren interesa. Baita kolpatuz soinu aterako duten tresnek ere: danborrak, esate baterako.
- 3 urterekin, autoak, panpinak, sukaldeko tresnak, ipuinak...
- ...eta horrela jarraituko genuke adinez adin zenbait joko nabarmentzen.

Baina galde genezake: Zergatik jolasten da haurra? Plazer hutsa da? Denbora-pasa bat? Askori entzun diogu: "Jolasa besterik ez du buruan"; eta horren azpian, askotan, denbora aprobetxatzeaz helduok dugun aurreiritzia ezkutatzen da: "Ikas dezatela probe-



txuzko zerbait", "ez dezatela alferrik denbora galdu".

Agian horregatik zamatzen ditugu beste arrazoi batzuk tarteko ere hainbat eta hainbat ekintza osagarriekin gure haurrak eta... "esponja xurgatzaile" bihurtzen.

Haurra, lehenik eta behin, beharra duelako jolasten da: dituen galderi erantzun nahian dabilelako.

Jolasean, tentsioak, zailtasunak kanpoan jarriz, haiek landu eta menderatu nahian dabil. Adib.: medikutara jolastuz eta berak medikuaren rola hartuz, hau da, berari egin izan dizkioten gauza berak panpinari eginez (pasibitate aktibotasunera igaroz, beraz), elaboratuz doa, besterik gabe, hainbat kezka sorrarazten dion mundu hori.





Jolasean, **ikasi** egiten du gauzen erabilpena eta gauzen zertarakoa. Ikasi eta **identifikatu** aitaren rolaekin edota amaren egiteko moduarekin. Jolasean areagotu egiten ditu fantasia eta irudimena.

Jolasean **kementsu** izaten ikasten du: halako batean galdu, baina jarraituz gero, irabazi egin daite-

keela frogatzen baitu... baldin eta gurasoek garbi adierazten badiote galtzeak ez duela esan nahi gutxiago dela, irabazteak gehiago dela esan nahi ez duen bezalaxe: lehia norbere buruarekin dela, alegia, ez bestearekin.

Hainbat beste alderdi azpimarra daiteke haurraren jolasaren onu-

rak agerian jartzeko. Laburtuz, zera esango nuke: haurrak era kontzientean konpondu ezin dituen arazoak (errealitatean konpondu ezin dituenak) **jolas-tuz** haien **KONTROLA** eskuratzten du.

Are gehiago: **jolasaren bidez BIZITZEN ikasten du.**



JOLASA HAURRAK DUEN BEHARRETAKO BAT DA!

Jolasak bere eginbeharra bete dezan, kontuan hartu beharreko **BALDINTZAK**:

1. Haurrak berak zuzendu dezala bere jolasa, gu laguntzaile izan gaitezen.
2. Denbora eskaini (ordu erdiko txolarteak ez dira aski)
3. Jostailuak jolasteko egin dira; haiekin eta haiengan eginean jarduteko. Hausten badira, hausten badi-tuzte, konpontzen saia gaitzke; ezin bada, ez erosi berehala beste berri bat.
4. Jolasa eteteko denbora eman; ezin dugu espero berehalakoan uztea.

Miren Garbizu
Ikastolako psikologoa



DBH 2. ZIKLOKO KOMISIOA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan joan den ikasturtean Komisio bat jarri genuen martxan. Komisio horretan biltzen dira, besteak beste: DBH 2. zikloko bi ikasle-ordezkarri, irakasle bat, guraso bat eta zuzendaritzako ordezkarri bat. Aurtengo komisia honoko hauek osatzen dute:

- Ikasleen ordezkarriak: Alazne Inziarte eta Aitor Etxeberria
- Gurasoen ordezkarria: Xabier Zapirain
- Irakasleen ordezkarria: Iñaki Lertxundi
- Zuzendaritza taldeko ordezkarria: Jaione Ugaldebere



Alazne Inziarte



Aitor Etxeberria



Iñaki Lertxundi



Jaione Ugaldebere

Gurasoen aldetik, talde bat jarri da martxan eta talde hau hilabetero biltzen da astelehenetan 18:00etatik 19:00etara. Talde hau guraso hauek osatzen dute: Marisa González, Maite Retegi, Asun Rodrigo, Joxe Ramon Arabolaza eta Xabier Zapirain.



Marisa González



Maite Retegi



Asun Rodrigo



Joxe Ramon Arabolaza



Xabier Zapirain

DBH 2. zikloko komisia honen egiteko nagusia funtzionamendu araudia eztabaidatu, osatu, onarpena bideratu eta betetze maila kontrolatzea da.

Komisio hau urtarrilaren 20an bildu zen lehengo aldiz, eta hortik aurrera, hilabetero biltzen da astelehenetan arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Nolanahi ere, edozein partaidek egin dezake deialdi berria Zuzendaritzari adierazi ondoren.

Erabaki bat hartzeko garaian, modu honetan banatu ditugu botoak: ikasleek 2 boto, irakasleek 1, eta gurasoek 1. Zuzendaritzako ordezkarriak ez du botorik izango. Nolanahi ere, ahal dela erabakiak aho batez hartuko dira, bozketara iritsi gabe. Erabaki ezineko kasuetan, ikastolako organo gorenetara joko da.

La Comisión del 2º ciclo de la ESO pretende impulsar la participación de l@s alumn@s de dicho ciclo como estamento de la Ikastola que son, para que den a conocer sus opiniones en temas que les afecten directamente.

Participan en la misma dos alumn@s, un@ profesor@, un representante de l@s padres-madres y un miembro de dirección.

Desde el 20 de enero, la comisión se reúne mensualmente los lunes a las 19:00.

Su principal función será convertirse en foro de discusión y aprobación del reglamento, incluido el control de su cumplimiento.



Aunque la comisión se reúne mensualmente, cualquier miembro puede convocar una nueva reunión, después de hacérselo saber a la dirección.

A la hora de tomar decisiones, los votos se dividen de la siguiente manera: 2 votos para l@s alumn@s, 1 voto para el profesorado y 1 voto para l@s padres-madres. El miembro del equipo directivo no podrá ejercer el voto. De todas formas, se intentarán tomar las decisiones por unanimidad, sin tener que llegar a la votación. Cuando no se pueda tomar una decisión consensuada, se recurrirá a los órganos máximos de la Ikastola.

DBH 2. ZIKLOKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA ESKOLA KONTSEILUAN

Haurtzaro Ikastolak aspaldidanik izan du arreta berezia bertako estamentu guztiek ikastolaren eguneroko bizitzan parte har dezaten. Hori dela eta, eta klaustroaren oniritziarekin, honoko hau hitzartu dugu: DBH 2. zikloko ikasleen parte-hartzea bermatzea. Urrats hau egiteko garaian, bi alderdi hartu ditugu kontuan:

- Ikastolako funtzionamendu orokorrerako daukagun organorik garrantzitsuenaren funtzionamenduz jabetzea gure ikasleak.
- Ikasleak, estamentu bezala, eduki ditzaketen kezak azaltzeko tartea izan daiteke, nahiz eta DBH 2. zikloko komisiotan aukera baduten ere.

Hori dela eta, Haurtzaro Ikastolan hamabostero bi bilera bideratzen ditugu:

- Eskola Kontseilua
- Kontseilu Errektorea

Lehenengo batzordean guraso, irakasle eta ikasleen ordezkariak biltzen dira:

- bost guraso
- zuzendaria
- bost irakasle
- administraria
- bi ikasle

Ikasleen bi ordezkari horiek delegatuak dira, hain zuzen ere Goiatz Labandibar Arbelaiz eta Nagore Zapirain Arce.



Nagore Zapirain



Goiatz Labandibar

Batzorde horretan Haurtzaro Ikastolako hezkuntza arloarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dira, eta hartu beharreko erabakiak aho batez hartzen saiatzen dira bertako kideak, betiere Haurtzaro Ikastolako ohitura mantenduz.

LA PARTICIPACIÓN DEL 2º CICLO DE ESO EN EL CONSEJO RECTOR

Haurtzaro Ikastola ha procurado siempre que todos los estamentos que la conforman, participen en su funcionamiento cotidiano. Así pues, con el apoyo del claustro de la Ikastola se ha acordado que los alumnos del 2º ciclo de ESO también participen en uno de nuestros órganos principales.

Los objetivos que nos impulsan a potenciar dicha participación los podemos agrupar, básicamente, en dos ideas:

- que nuestros alumnos conozcan el funcionamiento del principal órgano de gestión: el Consejo Rector.
- que los alumnos tengan un marco donde poder presentar sus aportaciones, aunque ya cuenten con la Comisión del 2º ciclo de ESO.

Por tanto, en Haurtzaro Ikastola se reúnen quincenalmente en dos sesiones diferentes y en función de sus integrantes:

- El Consejo Escolar
- El Consejo Rector

En el primero se reúnen los representantes de los padres-madres, profesorado, alumnado, el administrador y la directora. El segundo, el Consejo Rector, mantiene el funcionamiento actual.

Los dos representantes del alumnado han sido elegidos entre los delegados de clase. Durante este curso escolar son: Goiatz Labandibar Arbelaiz y Nagore Zapirain Arce.

En este Consejo escolar se analizan temas educativos, y las decisiones se adoptan por consenso.



HAURTZARO IKASTOLAKO IKASLE OHI BATEK IRABAZI DU AMODIOZKO GUTUNEN SARIA



Ainara Elizondo oiartzuarrak, 21 urterekin, Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa irabazi du. Dagoeneko ez omen du inork maitasun gutunik idazten, baina badaude oraindik jarduera intimo hori gogoko duten gazteak. Horietako bat da Ainara Elizondo, Amodiozko Gutunen IX. Berrigara Lehiaketa irabazi duena.

Ainara Elizondo gaur egun Hondarribian bizi baldin bada ere, Oiartzunen eman ditu bere haurtzaro eta gaztetxo garaiak. Izan ere, 3 urtetan Haurtzaro Ikastolan hasi zuen bere ibilbide akademikoa. Bertan ikasi zuen OHO osoa eta bertan jarraitu zituen bere ikasketak, BBB egitea aukeratu baitzuen. Gaur egun Euskal Filologiako laugarren ikasturtea egiten ari da.

Eta berarekin solasaldi bat egiteko asmotan bildu gara eta hauxe da kontatu diguna:

Txinpart: Nolatan aurkeztu zara lehiaketa honetara?

Ainara: Ba orain dela bost bat urte Haurtzaro Ikastolan, BBB egiten ari nintzela jaso nituen lehenengo aldiz lehiaketa honen inguruko oinarriak, Maitane Ugarte irakaslearen eskutik. Duela bost bat urte aurkeztu nuen gutun bat, baina orduan ez nuen suerterik izan. Eta aurten, uda partean, nire gela txukuntzen ari nintzela topatu nituen berriro ere lehiaketako oinarriak, eta berriro aurkeztea erabaki nuen. Eta berehala idatzi nuen gutuna. Abendu aieka, gelako neska batek oinarriak berriro banatu zizkigun, eta orduan esan nuen, aiba berriro ere oinarri hauek. Kasualitate gehiegi. Eta gutuna dagoeneko idatzita neukanez, aurkeztea erabaki nuen.

T: Eta nola jakin zenuen zure gutuna saritua izan zela?

A: Ba, otsailaren 6an abisatu zidaten Bergaratik nire gutuna izan zela irabazlea. Sorpresa handia izan zen niretzat. Egia da aurkezteko garaian baduzula nola-baiteko itxaropena, bestela ez zenuke aurkeztuko. Baina, dena dela oso sorpresa handia izan da.

T: Baina Ainara, badakigu zure lehen saria Oiartzungo prosa-poesia lehiaketan jaso zenuela...

A: Bai, halaxe da. 1995eko urtean izan zen eta BBBko 3. maila egiten ari nintzen. Orduan Maitane Ugarte zen gure euskarako irakaslea eta berak esan zigun idazlan bat egiteko. Berak eman zigun izenburua, izenburu oso luzea jarri zigun gainera. Eta egingakoa bidali nuen eta lehen saria jaso nuen. Eta gelako beste lagun batzuk, berriz, beste sariak, aipamenak jaso zituzten (Mikel Antero, Maitane Zubizarreta, Bakartxo Arabolaza...).

T: Beraz, 1995ean eskuratu zenuen lehen saria, baina idazteko afizioa noiz sortu zitzaizun?

A: Egia esan nire gustuko arloak beti euskara eta gaztelania izan dira. Ingelesa ez hainbeste. Eta latina ere oso gogoko izan dut. Eta egindako idazlanetan, irakasleek beti jartzen zidaten hau da hobetu behar-ko zenukeena, hau falta zaizu...; baina horren parean ere oso espresio ona duzu, ondo erredaktatuta dago. Eta beti nire ikasketetan konstante bat izan da. Eta, gainera, nik letretatik joatea erabaki nuen. Eta oso ondo joan zait.



T: Irakurzaletasun handia daukazula badakigu. Berezkoa al duzu afizio hori?

A: Ikastolan txikitatik bultzatu izan digute irakurtzeko grina. Eta txikitatik hartu nuen irakurtzeko ohitura. BBB garaian asko irakurri genuen, eta gaur egun karreraren beste era bateko liburuak irakurtzen ditugu. Eta behin karrera amaitu ondoren, hor gordeak ditudan nobela asko irakurtzeko irrikitan nago.

T: Ainara, sari hauez gain, beste batzuk ere jaso omen dituzu...

A: Bai, UBI Hondarribian egin nuen, eta han, Bordari eta Satarka izeneko prosa-poesia lehiaketan Gabonetan parte hartu izan dut, Oiartzungo ohiturari jarraituz, eta hainbat urtetan sariak eskuratu izan ditut.

T: Aurrera begira, zein dira zure asmoak?

A: Gaur egun baditut ideia batzuk, baina ikasketak amaitu behar ditut eta ondoren jarraituko dut idazten. Badut asmo bat eta hori gaur egun hezurmami-tzen ari naiz.

T: Ainara, esango al diguzu orain arte irakurri dituzun libururik gustukoena?

A: Ba, azpimarratuko nituzke gaztelaniaz Celaren "La familia de Pascual Duarte" eta euskaraz, berriz, Txomin Agirrerren "Kresala" liburua.

T: Badakigu lehen trikitixa jotzen zenuela. Gaur egun jotzen al duzu?

A: Bai, bai jarraitzen dut jotzen. Inauterietan esan didate ea joko dudan, baina ikastaro bat egiten ari naiz eta ezingo dut jo.

T: Nolako oroitzapena duzu Haurtzaro Ikastolarekin?

A: Oso ona. Nire lagunak oraindik Ikastolakoak ditut. Nire euskarako oinarria BBBko 3 urte horie-

tan jaso nuen. Eta egia esan karreraren hobetzen duzu, baina nire heziketan eta nire formazioan hiru urte horiek erabakigarriak izan ziren. BBB Oiartzunen bukatu ondoren, Hondarribira joan ginen bizitzera eta UBI han egin nuen. Eta ikasturtea bukatu ondoren, matrikula eman zidaten. Nire maila hainbat arlotan hango ikasleena baino altuagoa zen. Egia esan, ni ere oso ikasle saiatua izan naiz beti.

T: Bukatzeko zerbait erantsi nahi al duzu?

A: Egia esan eskerrak eman nahi nizkioke Ikastolari. Haurtzaro on bat izatea garrantzitsua da, eta egia esan nire idazteko afizioa Ikastolan gauzatu zen. Irakasleek egindako idazlanen ondoan jartzen zizkidaten aipamenak eta animuak, askotan, oso lagungarriak izan dira. Eta hemendik eskertu nahi ditut bertako irakasleak paper garrantzitsua jokatu dutelako niregan.

Oso gustura aritu gara berbetan Ainararekin, eta esandako guztiak oso kontuan hartuko ditugula adierazi nahi diogu Haurtzaro Ikastola osoaren izenean. Zorionik beroenak Ainarari!!

Ainara Elizondo ex-alumna de Haurtzaro Ikastola, ha sido galardonada con el primer premio de Cartas de Amor organizado por la Asociación Berrigera de Bergara. Txinpart entrevista a Ainara, quien hace un recorrido por su historial como alumna de este centro escolar.


Reconoce que su afición a la escritura le viene desde muy pequeña, pero que los años en los que cursó el BUP en Haurtzaro fueron decisivos en su preparación académica. Actualmente está cursando cuarto de Filología Vasca y da las gracias a Haurtzaro Ikastola por los ánimos que ha recibido siempre en los trabajos escritos que ha realizado



Antton Ezkerro: "Kirolak lagunartea izan behar du"

Antton Ezkerroren izena kirolari lotua dago, bai behintzat Ikastolaren ikuspuntutik. Hasi 20 urtetan eta 36 bete arte Haurtzaroko kirol taldeei emana ibili da buru-belarri. Eta ez soilik entrenatzaile moduan; urte askoan kirol talde guztiak antolatu eta abian jartzeko ardura izan du (titulurik gabeko koordinatzailea izan da, nolabait). Bere bizitzako oinarria entrenatzea izan dela aitortu digu; orain, baina, gauzak asko aldatu omen zaizkio: familia izan dute andrea eta biek, eta denbora arrunt eskatu zaio (bi alaba, lana, taberna...), eta nekea gailendu ere bai, entrenatzeak asko nekatzen baitu, bere esanetan.

Alaba zaharrenarekin etorri zaigu elkarrizketara, Garazirekin. Datorren ikasturtean ikastolan hastekoa da, eta etxe handi hau nolakoa den ikusi nahi omen zuen. Aitzakia horrekin, bere ikasle garaiei begira jarri digu Antton: "Orduan gaur baino beranduago hasten ginen ikastolan, 5-6 urterekin. Gu ikastolan lehenetakoak izan ginen, eta garai hartan ez zitzaigun gogorra egin; denbora-pasa bezala oroitzen dut. Ikastola hasiberria zen bere bidean, eta joerak finkatu gabe zeuden artean. Garai hartan Ikastolak ez zuen eraikinik, eta batean eta bestean ibili behar izan genuen: Lartaunen, gaur egungo Bibliotekan...".



Haurtzaro Ikastolako kirol taldeen sorrera

Urteetan Oiartzun Kirol elkarteak izan da Oiartzungo kirol talde nagusia, eta ia bakarra. Futbolaren itzala luzea den seinale. Baina Oiartzun KEk ere ez du izan sekula nahi adina baliabide, eta orain dela 16-17 urte ere neke franko izango zuen aurrera egiteko. Oiartzun Kirol Elkartea ez zen gai haur futbolzale guztien eskariari erantzuna emateko, entrenatzaileak eta azpiegitura falta zituelako, eta guraso zenbait kezkatu egin ziren beren semeek aukerarik izango ez zutelako. Hala, Haurtzaro ikastolan horri irtenbide bat eman behar zitzaiola erabaki zuten: "San Roman lehendakari zegoela, Jabi Zufiria eta hiruren artean Haurtzaroko futbol taldea sortu genuen. Kirol azpiegituran sumatzen genuen hutsuneari erantzuteko egin genuen". Anttonek 20 urte zituen artean, eta aldian aldiko egiturekin moldatu behar izan du bere ibilbide luzean. "Ahal zen moduan moldatu, gainera. Hasieran dena zen ezeza-

guna, ereduak falta genituen eta dena norberak egin beharra zeukan. Ahal zena egin, ahal zen hobekien, horixe zen kontua. Beste entrenatzaileen laguntzarekin, beste ikastetxeetako arduradunekin hitz eginez". Gurasoen laguntza ere funtsezko iruditzen zaio lan egiteko orduan, eta haiek erakartzea entrenatzaileen esku dagoela uste du: "Entrenatzaileak jakin behar du irekitzen, eta guraso jakin batzuk mugitzen, haiek besteak mugiaraz ditzaten. Hasieran bakarrik aurrera egiten saiatzea ohiko da, baina denborarekin ikasi egiten da, eta talde bat osatu behar dela konturatzen zara, bai jokalariekin eta bai gurasoeekin; afari batzuk eginez, gurasoak bilerara deituz, aldeko giro bat sortu behar da. Jokalariekin giro hori sortzen da, egoerak hartara behartzen duelako, baina nik funtsezko ikusten dut gurasoen artean giro egokia izatea. Azken batean, kirolak lagunartea izan behar du"



Hala, eskola mailako futboleak egin zituzten lehen urratsak, Diputazioak antolatutako txapelketan, baina fundamentu handirik ez, eta Hondartzara jo zuten, eta, azkenik, berriz ere Diputazioaren baitara itzuli ziren.

Kirol proposamen berria. Diputazioaren ekimena

Diputazioak hainbat saio egin ditu kirol eskaintza antolatu nahian. Hasieran futbola bakarrik eskaintzen zuten, eta Haurtzaroko taldeek ere horixe egiten zuten. Gero etorri zen hiru kirol egiteko proposamena. "Hori salto handia izan zen, baina beharrezkoa. Futbolarena gehiegikeria bihurtzen zen, eta beste kirol batzuk ere egitea mesedeko da". Hasierako garai haietan, denek ez zuten, ordea, ikuspegi bera, eta ez da harritzekoa; futbolari lekua kentzea onartezina izango zen batzuentzat, gurasoentzat adibidez. "Denbora galtzea iruditzen zitzaion, eta erabat kontra zeuden. Ez ziren konturatzen

beste kirolek ere balio dutela oinarritzeko gauzak lantzeko: abiadura, trebetasuna... Hor, azken batean, betiko kontua dago: futbolaren indarra. Orain bezala, lehen ere futbola ageri zen bazter guztietan, gehiegikeria bihurtzeraino, eta gurasoek ere hori eskatzen zuten, eta baita ikasleek ere, noski. Baina Oiartzungo kasua aztertzen badugu, 30 urtean goi mailako futbolari bakarra ateratu da..."

Futbolaren kontra borroka egitea egokitu ote zaien galdetu diogunean, argi esan digu kontua ez zela hori. "Futbolak gauza on asko ditu; hasteko, oso ongi antolatua dago, eta behetik gora joateko aukera eskaintzen du. Baina haurrek ikasi behar dute beste aukera batzuk ere badaudela. Hala ere, futbola egiten da gehiena. Baina porrot gehien ere futbolak eragiten ditu. Futboleak hamaika lagunak jokatzen dute, eta beste asko jokatu gabe gertatzen dira. Baina, noski, horretaz konturatzen dira 20 urte dituztenean. Agian planteamenduak

aldatu beharko dira, baina gauden bidean, futbola, futbola eta futbola besterik ez da".

Urteroko kezkak. Non daude monitoreak?

Borondateak gauza asko egiteko bide ematen du (lkastola bera da horren adibide argiena), eta Anttonek ere baieztatu dezake hori. Haurtzaroko kirol taldeek aurrera egin badute, monitoreen borondateari esker izan da, neurri handi batean behintzat. Azken urteetan, ordea, izugarri kostatzen zitzaion Anttoni monitoreak aurkitu eta taldeak abian jartzea, hori zen zailtasunik handiena, eta hortik hautsi zen ordu arteko antolamendua ere.

Zerbait egin behar zen, egin behar zenez!, eta Diputazioaren ekimenez ikusi zen argia: Diputazioak, Udalak, ikastetxeek eta gurasoek diru kopuru bat jarriko zuten, eta hori monitoreentzat bideratuko zen. "Ez zegoen beste erremediorik. Garai batean bazen jendea borondatez lan egiteko, eta orain ere aurkituko genuke ziurrenik, baina gero eta zailago bihurtu da. Diruak laguntzen du jendea lortzen, eta konpromiso batzuk harrarazten dizkio. Nik uste dut bidea hori dela. Ni ibili naizen urte guztietan, inork ez dit ezer eskatu, ez lkastolak, ez gurasoek, baina orain baliabide gehiago dagoenez, eskatzea ere zilegi da. Denok eska dezakegu zerbait, baina denok jarraitu beharko dugu zerbait ematen".

Diru saria monitoreen lana aitortzeko lehen urratsa da, baina Anttonek sumatzen du luzerako planteamendua dela, edo hala hartu behar dela, behintzat. "Oso gutxi ordaintzen zaie,



baina zerbait bai. Gainera, ikastaroak eskaintzen zaizkie, ikasteko aukera, eta horrek ekarriko du lana hobetzeko modua. Azken batean, gauzak normaltzea besterik ez da. Beste jarduera guztiak egiteagatik kuota bat ordaintzen da, dela dantza edo dela beste edozer gauza. Bada, kirolean ere berdin: monitore bat dago, lan bat eginez, ordu batzuk eskainiz, eta hori ere ordaindu egin behar da".

Eta neskak?

Monitoreen eskasia larritik tiraka, ohartarazi digu zenbait gurasok ere hartu izan dutela ardura hori, "gehienetan semeen arrimuan". Eta hori da Ikastolan urtetik urtera sumatu duen "hutsune" handiena: "Neskek ez dute Eskola Kirolean parte hartzen. Oiartzunen, mutilak baino gehiago dira neskak kopuruz, baina kirolean apenas agertzen den hori. Noiz edo behin lortu da gelaren batetik edo mailaren batetik taldea ateratzea eta segida pixka bat ematea, baina oso bakan. Zergatik? Nik ez dakit". Guk ere ez. Eta zuek?

Herriari begira

Ikastolako martxa bideratu samarra ikusten du, "eta hori pozgarria da. Gu hainbeste urtean lanean aritu eta segida bat eman zaiola ikusteak ematen baitio zentzua gure lanari. Kate luze horretan eusten ahalegin bat egin genuen eta horren emaitzak orain ageri dira". Herriko kirol antolamenduari buruz, ordea, zalantza gehiago ditu. Sekula baino aukera gehiago dago kirol eskaintzan, baina Anttonentzat hori ez da aski. "Udalak joera bat finkatu behar du, eta arduradun bat jarri. Beti sumatu dut horren



falta. Herrian egiten den kirola bere gain hartu behar du Udalak, busti egin behar du, dirua ematea ez delako aski. Kirol taldeetan buru dabilzan zenbaitek utziko balute, guztia desegingo litzateke, eta hori tristea da. Udala saiatzen da, ez da dudarik, baina

arduradun bat behar da, kirol mundua eta herriko kirola zuzentzeko. Ikastolak baditu bere arduradunak, futbol taldeak eta besteek ere bai, baina horiek guztiak lotzeko norbait falta da, eta hori, nire ustez Udalak egin behar du. Izan ere, helburua zein den argi du Anttonek: "Azpiegitura sendoak jarri behar dira kirol guztietan. Jende asko ari da lanean, borondatez. Lan miresgarria egiten ari da, eta horrek erantzun bat merezi du. Hartara, norbaitek ardura horiek utzita ere ez litzateke hutsune hori nabarituko. Baina, tamalez, orain Oiartzunen kirola dagoen bezala egonda, dena goitik behera erortzeko arriskua dago".

Joanak joan...

Atzera begira hasi eta etorkizuneko ildoak nondik joan behar lukeen esatera ausartu da Antton. Eta etorkizuna etxean ikusten du, beste inon baino gehiago, bizi-bizi, gainera: "Guraso izatea gauzarik handiena da. Erakutsi, ikasi eta ahal den guztia berari eman, gehiegi ere bai batzuetan. Guraso bezala problema hori ikusten dut, baina egia da denek hala egiten dugula. Nire irudipena da gehiegixko dela".

Entrenatzaile lanei bezala, guraso betebeharre ere neurria hartzen ikasi egingo da, noski, eta Anttonek alde horretatik eskarmentu pixka bat badu, urte luzez ibili behar izan baitu gurasoekin harremanetan.

Orain bere txanda da, eta, zer gutxiago! Kirolera ere erakarriko ditu alabak: "Besterekin hainbeste ibili ostean, ikusten ari naiz honekin [Garazirekin] tokatuko zaidala berriro bueltaka ibiltzea. Kanpokoekin ibilita..."



HIZKI-ZOPAK

EUSKAL HERRIKO IBIAK

Euskal Herriko hamabost ibai aurkitu behar dituzu.

O	R	I	A	Z	F	G	J	K
B	I	B	U	R	U	M	E	A
I	S	A	X	G	M	A	J	D
D	D	I	R	E	X	L	L	A
A	I	Z	S	T	B	O	U	G
S	I	A	A	Z	Z	R	Y	U
O	L	B	G	D	P	U	O	A
A	P	A	E	A	O	K	N	K
G	I	L	G	K	X	R	E	M
J	R	E	A	S	Z	L	R	U
E	R	R	O	B	I	N	B	A
M	U	A	D	T	R	U	I	T
G	T	A	R	G	A	H	O	F
E	T	Z	I	T	A	R	I	D
U	A	B	E	D	S	E	T	S

EUSKAL HERRIKO HERRI
GARRANTZITSUAK


Euskal Herriko hamar herri garrantzitsu aurkitu behar dituzu.

D	U	R	A	N	G	O	A	K
A	I	S	V	O	F	G	M	C
M	O	T	R	T	C	D	U	H
A	R	I	P	O	D	H	R	C
T	A	F	A	L	L	A	R	R
A	S	P	S	R	I	K	I	L
F	M	R	A	G	I	M	O	R
A	P	B	M	S	L	Z	T	C
L	E	I	E	D	A	T	U	A
C	T	R	P	R	K	I	H	N
O	F	U	W	C	M	T	A	F
B	O	N	T	D	T	E	C	O
C	E	K	A	E	L	H	O	I
F	C	R	A	H	R	L	D	R
T	O	L	O	S	A	A	C	O

Zein da birritan agertzen ez den irudia?



Zenbat suge daude?



NON DAGO?

Ea gai zaren ondoren doazenak irakurriz, dagozkien pertsonaiak aurkitzeko.

Pottokien antzera,
Kapela barregarria darama
neska beltzaran honek.

Adarra badu, baina ez da
aharia. Ardi larrua badu,
baina ez da aharia.

Lumak badituzte baina ez dira
hegaztiak. Barrezka ari dira
eta goxo-goxo daude.



Pistola eskuan eta
kapela buruan, izar gorri
bat du paparrean.

Kapela arrosa buruan,
irribarrea ahoan

Ile horia du.
Txano gorria airean
eta izua aurpegian

Indioen orrazkera badu,
hauen arkua ere bai,
baina ez du gezi askorik botako
era horretan hartzen badu.

Musika tresna bat
jotzen ari da.
Txapela urdina du buruan
jertse laranja du jantzita eta
lagunik ez zaila falta.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiartzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3^a dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



BIO ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04
CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa
Diagnosia
Salmetak
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46



HAURTZARO Ikastola